

# Arabako fraideak

*Tenemos ya alguna noticia de los monjes alaveses y su vida monacal en los siglos IX-XVIII (véase el número precedente de la revista). Completando lo dicho, ofrezco aquí un breve repaso de la historia de los "frailes", es decir, de los religiosos de las Ordenes Mendicantes de Alava (franciscanos, dominicos, etc.).*

Lehenagoko monjeen Monasterioekin gertatu zenaren kontra, fraideen Arabako Komentuak erlijioso-etxe handi ederretakoak izan ziren (bat edo beste salbu), eta, beharbada, adibiderik ederrenak Gasteizko Sto. Domingo eta San Frantzisko Komentuak izan ditugu, biak XIII. mendean eraikitzen hasitakoak, eta Probintziako bizitza zibil eta erlijiosoan eragin bizkorra izandakoak.

## **Fraide-komentuen geografia arabarra**

Eskeko fraideen presentzia kopuruz ezberdina izan zen Arabako eskualdeen artean, eta mai-zenik Probintziako herri handienetan lekututa zeuden Komentuak. Gasteiz izan zen, noski, gizonen Komenturik nagusienak bereganatu zituen, frantziskotarrek eta domingotarrek beren Komentu-Eskolak hiriburuan jartzean.

Nonahi ere, Eskeko Ordenek hirietarako joera izan zuten: herri eta hirien barruan edo ondoran jaso ohi zituzten Komentuak (gogora, Guardia eta Bastidako kasuak, adibidez); hala ere, Arabako kasuan eta esandakoa gogoan izanik, Komentu-etxe arabarrak nahiko sakabanatuta aurkituko ditugu inoiz edo beste, eta herrietatik ongi aparte ere bai, zinezko bakar-leku zirela (Kanpezu-ko Piedrola frantziskotarra, adibidez, mendi-mendiko bakardadean ikus daite-

keena, edo agustindarrek Badaiaiko mendi-artearen izan zuten Sta. Katalinaren Komentua).

Fraideen Komentu arabarrak ondoko herri hauetan zeuden lekutuak: Gasteiz, Guardia, Bastida, Kanpezu, Argantzun eta Iruña. Hau esatean, ez da ahaztu behar, mende beretan zenbait moja-komentu ere sortu zela, Arabako Komentuen sare osoa osatuz, XIX. mendeko lehen hamarkadak arte.


## **Ordenen ekarpena**

Esandako garaietan, Araban Komenturen bat izan zuten Ordenak ondoko hauek izan ziren: frantziskotar eta domingotarrak lehenengo, XIII. mendean bertan, jeronimotar (Toloño, Badaia), mesedekoak (Toloño) eta agustindarrak (Badaia) XV. ean; kaputxinoak XVII. mendean ireki zuten beren Komentu bakarra, Guardian.

Egia esan, domingotar, mesedeko eta agustindarrek ere etxe bana bakarrik izan zuten. Azpimarratzekoa da, gainera, karmeldarrek hemen aipatzen ditudan gizaldietan ez zutela ireki Komenturik Araban. Jesulagunena gogorragoa izan zen, ahalegin zailen ondoren Gasteizen Egoitza ireki arren, urte gutxitarako izan baitzen (1751-1767).

Eskeko Ordena hauen Komentu-sarean ezber-





dintasun handiak sumatzen dira. Komentu handienak Gasteizko domingotar eta frantziskotarrenak izan ziren, azken horrek, adibidez, 78 fraide zituen 1768an; baina Probintziakoren bat ere ez zen izan hain txikia: Bastidako frantziskotarrenak 49 lagun zituen urte berean.

Honelako Komentuak esanahi sozial handiko Etxeak ziren, herritarrekin ez ezik Udal eta Probintziako Erakundeekin ere harreman hertsiki zituztenak, eta garaiko ohizko erlijiotasun bizkor hartan bizimodu arruntean eta urteko nahiz lekuko ospakizun berezietan gidaritzaren eraman zutenak.

Eskeko Ordena erlijioso haiek Probintziako klase jasoek babestuak ziren, biziera luzituago baterako, eta hildakoen elizetako hilobi ederretan aurrekoen oroitzapena zaintzeko. Horregatik, ez da batere harritzekoa batez ere Komentu handien arte-lanik franko bildu izana, aldare, irudi, hilobi eta abarretan. Guztion zoritxarrrako, Komentu haietako hainbat desegin eta ezabatua izan da, eta arte-ordare hura galdurik dugu parte on batez behintzat. Orduko artxibo eta liburategiek ere patu txar bera izan dute sarritan. Dena den, fraidearte haietako ondarerik baliotsuena gizonena zen, eta horretaz esan behar da zerbait.

### **Pertsonaia leinargiak**

Arabak Gipuzkoa eta Bizkaiari Monje- eta Fraide-Ordenak garatzean aurrea hartu zenez, uste daiteke, haiek egindako ekarrian ere aberatsago izan zela Araba beste Lurraldeok baino. Baina ez naiz hasiko honelako konparazioak egiten.

Komentuetan Gramatika-Eskolak eta Teo-

logia-Eskolak egon ziren, denetan berdinez izan arren; jasoenak eta ikasletsuenak Gasteizen, noski, nahiz eta halako beste Etxeetan ere tamaina batean edo bestean kulturaren alde gehiengoa landu zen.

Hasteko, fraidegaiei ematen zitzaizkien eskolak daude, herriko gazte saiatuagoentzako gramatika-ikasketak, eta gero Komenturen batean edo bestean Filosofia, Zuzenbide, Moral edo Teologiako Ikastegiak. Zeregin hauetan Gasteiz laster jarri zen Iruñeko eskola-eskaintzen pertsuan, eta beti ere Bilbo edo Donostiari alde handia hartuta.

Horrek guztiak ekarritako kultur giroak lagundu zuten, gainera, noizbehinka bederen pertsonaia leinargiren bat edo beste nabarmentzen. Landazuri historialariak egiten du horren guztiaren balantzea, idazle erlijiosoen biografiak ematean: Joan Gasteizkoa, historialari domingotarra (*Cometeorologia*, 1587), Meltxor Amigo kronikari frantziskotarra (†1747), Bernardo I. de Etxabarri jesulaguna (†1762; San Prudentzioren bitzita eta Paraguaiko misioei buruzko idazlanak), Joan Luzuriaga, Arantzazuren historialari frantziskotarra (*Paranympho celeste*, 1686), etab. gogorarazten dizkigu Landazurik.

Honela, bada, Arabak bere probetxua atera ahal izan ziren eliz Erakunde haiei, eta aldi berean Erakundeok baliatu ahal izan ziren arabarren borondateaz eta berauek eskainitako baliabideez, denak ere elkartasun emankor batean.

Hori izango da gure hurrengo historia.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharra:* 610-273580